

## **Prentsa oharra.**

2024ko abuztuaren 2ko Osoko Bilkuran, Aiarako Udalaren aurrekontuak onartu dira, Aiara Batuzen eta EH Bilduren aldeko botoekin. Guztira, 3.115.528,25 €-koa da.

Zatirik handiena langile-gastuei, mantentze-gastu finkoei eta aurreko legealditik hartutako konpromisoen gastuei dagokie, eta oraingo gobernu-taldeak honako gastu hauei eutsiko die: emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko partidan 1.000 €gehiago jartzea, Etxaurren ikastolan plaka fotovoltaikoak jartzea, udal-larrialdietako plana, ikastolako berogailua instalatzea (nahiz eta balioesten ari den galdara berria jartzea energia fosilaren iturriak ordezkatzuz), kirol-ekitaldiak eta kirolanitzza programa, eta Luiaondoko geltokiko aparkalekuaren dokumentazio teknikoa eta segurtasun-koordinazioa egiteko partida.

### **Kapitulu berrietan honako hauek daude, besteak beste:**

1. Arkitekto-figura bat kontratatzea, txanda-kontratuaren programaren barruan.
2. Aisialdirako gunek bat egokitzea, berdintasun-irizpideetara eta klima-aldaketara egokituta.
3. Lehen sektorea dinamizatzeko partida prestatzea.
4. Klima- eta energia-plana izeneko partida bat prestatzea.
5. Udalerrian lur ez-emankorrek aztertzeke partida.
6. Udaletxearen proiektuaren ordainsarietarako kontu-saila.
7. Ibaguen pistan esku hartzeke partida.
8. Aiaran langileak eta hildakoak oroitzeko leku bat egokitzeko partida.
9. Udalerriko tximiniak garbitzea diruz laguntzeke partida. EAJ-PNVk urtean zehar aurkeztutako proposamena kontuan hartuta gaitutako partida.

**EAJ-PNVk aurkeztutako proposamenei dagokienez, aurkeztutako bi proposamenak hartu dira kontuan:**

1. Udalerrian dagoen udal-markesina bakarria aldatzea. (Luiaondo) Obra urtean zehar egin daitekeela esan dugu, baina lehenik eta behin Administrazio Batzarrarekin hitz egin nahi da proposamenaren berri emateko eta haren oniritzia lortzeko.
2. Etxaurren ikastolan irisgarritasun-obrak egitea. Talde politiko guztiak ados gaude obra horrekin, eta, horregatik, gobernu-taldeak horretarako laguntza ekonomikoa eskatu zuen 2023an, baina ukatu egin zuten. Premia horren aurrean, udal-teknikarien alde aurreko azterketa egitea baloratu da, dirulaguntza berriro jasotzeko eta partida 2025erako aztertzeko.